

ANTON ORMAZA ▶ IKASTOLA MUGIMENDUAREN SORTZAILEETARIKO BAT

«Eskola klandestinoak sortzea erabaki genuen»

Jon Gofinondo eta Euskeraren Laguntzailleak taldekoekin batera jardun zuen ikastolaren sorreran

GOTZONE BILBAO

Ikastola mugimenduaren sortzaile Anton Ormazak (Bermeo, 1922), garai hartako bizipenen berri eman dio BUSTURIALDEKO HITZARI.

Noiz sortu zenuten orduko eskola, gerora ikastola bilakatu zena?

1966. urtean sortu genuen eskola, baina urtebete lehenago ere hasi ginen mugitzen, Bizkaian eta baita Gipuzkoan ere.

Izaten al zenuten harremanik garai hartako beste eskolekin?

Bai, batez ere Bilboko eta Donostiako eskolekin.

Zelakoa izan zen sorrera?

Oso gogorra. Behin eta berriro eskatu genituen eskola sortzeko baimenak, baina Espainiako gobernuak trabak baino ez zizkigun jartzen. Azkenean, eskola klandestinoak sortzea erabaki genuen.

Zer dela-eta sortu gura zenuten?

HARRO

«Harrotasun handia sentitzen dut oraindik gaur egun ikastola martxan dagoela jakitean»

SORRERA GOGORRA

«Oso gogorra izan zen eskola sortzea, gobernuak behar genituen baimenak ez zizkigulako ematen»

DEBEKUA

«Garai hartan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen; isilpean baino ez zen erabiltzen gure hizkuntza»

Garai hartan, orduko kontuak albo batera utzi, eta egarri berri bat sortu zen. Egarririk horrek bultzada emango zion hezkuntzari, soziopolitikari eta, nola ez, gure hizkuntzari.

Zer iritzi zuten euskaraz herri-tarrek?

Orduan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen eta isilpean baino ez zen erabiltzen. Gainera, askok eta askok, euskararen aurrean ezjakintasunez jokatzen zuten.

Nortzuk parte hartu zenuten eskolaren sorkuntzan?

Lagun asko behar ziren eskola bat aurrera ateratzeko eta laguntza handia jaso genuen Euskeraren Laguntzailleak taldearen eskutik. Zer esanik ez fraideek emandako laguntzaz.

Zer da Euskeraren Laguntzailleak taldea?

Euskeraren Laguntzailleak 1965ean sortu zen elkarte da eta, egia esan, euskarari behar zuen bultzada emateko ezinbestekoa izan zen orduan.

Zenbat laguntzaile batu zineten azkenean?

181 lagun. Bakoitzak ahal zuen dirua aurreratzen zuen eskola aurrera ateratzeko.

Non zegoen orduko eskola?

San Frantzisko elizaren atzean aldean zegoen, soloan. Hasieran bi gela izaten genituen, baina gero eta ikasle gehiago genituen, zabalduz joan ginen gure eremua.

Ikasleez ari zarenez, zenbat umerekin hasi zineten lanean?

Ireki berri, adin ezberdinetako 28 ume izan genituen. Gero 90 izatera heldu ginen.

Eta irakasleak nortzuk izaten ziren?

Irakasleekin arazoak izaten genituen, batzuk titulugabeak izaten zirelako. Sorreran Mari-sa Landeta eta Eufemia Uriarte andereñoak izan genituen. Gero, Itziar Abaroa, Arratzuko Anjelita eta Madalen Agirre ere aritu ziren, besteak beste.

Izaten al zenuten bisitarik?



GOTZONE BILBAO

Bai, isilpean genbilien arren, goardia zibilek eskolaren berri izan zuten eta sartu ere sartu ziren.

Noiz arte izan zen klandestino ikastola?

1969. urtean legalizatu zen. Colegio Santa Eufemia zen bere lehenengo izena.

Isilpekoa izanik, ez duzue izango orduko dokumenturik, ezta?

Dokumentu ofizialik ez dugu, izenen zerrendak, gurasoei bidalitako gutunak, kredituak, diru kontuak... Ez dago doku-

mentazio askorik, baina dagoena oso interesgarria da.

Sorreran parte hartu zenuten artean Jon Gofinondo ere agertzen da, zein da bere papera kontu honetan?

Beste laugaz batera eskolako presidentzia sortu genuenean, Jon Gofinondo zen burua. Esan daiteke berak dena antolatzen zuela eta besteek lagundu egiten zutela. Gainera, Eleizaldeko lehengo kooperatiba sortu genuenean Jon Gofinondo izan zen presidentea.

Zelan sentitzen zara 1966an klandestinitatean sortu zenuten eskola haren ibilbidea ikusita?

Harrotasun ikaragarria senti-

tzen dut oraindik gaur egun ikastola zutik dagoela ikustean. Benetan gogorra izan zen garai hartan bizitakoa. Oztopo asko gainditu behar izan genituen.

Egoera gogorrez ari garenez, zer iritzi duzu Hitzaren diru laguntza ezaz?

Oso gogorra iruditzen zait egunero kalera ateratzen den euskarazko egunkari bati laguntzarik ez ematea. Garai hartan antzeko egoera izan genuen, behar genituen baimenak ez zizkigutelako ematen. Baina, era batera edo bestera, dirua lortu behar duzue gure inguruko berriekin betetako egunkaria aurrera ateratzeko.